

Sarean erori gara

AZKAR egiten du aurrera munduak. Berriztapenaren erritmoa dardarikorra da eta azken bolada honetan azpimarratzekoak diren bi saltu kualitatibo gertatu dira: lehena mendearen aldaketa izan zen, kostatu zitzaion pasatzea baina atzean geratu da jadanik, eta orain eurora moldatu beharra. Oso denbora gutxi barru XX mendea historia bihurtuko da edo, goazen martxan, historiaurrea.

Gehien eragiten gaituzten arloetariko bat interneten eboluzioa da. Epe laburrean gauzak oso desberdinak izango dira guretzat. Beste gizarte aurreratuagoen berrikuntzak zirenak, eta guk zalantza apur batez sinesten genituenak, hemen ditugu jadanik. Ziztu handiagoan edo txikiagoan sarean sartu gara, la denok. Errealitate hurbila bihurtu zaigu, egunerokoa, normala. Eta zentzazio argi batez: mundu berri horretara agertu baino ez dugula egin oraindik, hain zuzen. Beste batzuk askoz ere aurrerago daude, urutiago, eta beraiengana goaz arrapaladan.

Bi adibide Pyrenaican, nola sartu garen komunikabide informatikoen munduko amaraunean erakusteko. Lehena Mendiaren zokoa interneten deritzon atala, Rikardo Hernanik azken alean, 205ean, hasi duena, mendi-informazioaren alorrean atari onena izateko lehian ari diren munduko bost orri onenak zeintzuk diren azalduz. Hurrengo aleetan Pirineoen gaineko

orriak azalduko dira, Picosei buruzkoak, mendi-turismoari dagozkionak eta meteoarekin zerikusirik dutenak. Zerrendak ez du amaierarik, hutsune batetik sartu den atal horrek leku zabala bereganatuko du laister, eta... jakin, ez dakigu ez eta Pyrenaicak berak epe laburrean nolako formatua izango duen ere.

Bestea EMFaren web orria da, Luis Ibergallartuk bideratzen duen mendikowebea, hain zuzen. Errealitatea da jadanik, orri zaindua, egunetik egunera erakargarriagoa bihurtu dena. Federakundeari eta mendi-munduari buruzko berriak ekartzen ditu, eta meteo, eta gero eta link indartsuagoak, klubak helbide elektronikoak, interesatuekiko posta zuzenaren bidezko kontaktua dutelarik. Laister, Pyrenaicarako sarbidea.

Baina, ez gaitzela nahas. Hori guztiori oso ondo dago, eta ondo dago mendian telefono mugigarriak erabiltzea, eta kartografia digitalizatua eranstean duen GPSa, eta erabilgarriak diren beste asmakizun tekniko asko. Baina garrantzitsua zera da, eta izango da, mendira joan eta inguruaz gozatzea; eguzkiak, edurraz eta harkaitzak; lagunez eta bakardadeaz; ahaleginaz eta sakrifizioaz eta baita ekaitzaren ondorengo aterpeaz ere, nekearen ondorengo atsedendiaz eta egarri izan ondorengo ur-traguaz. Oraindik ere plazerra da botak kendu eta lurrean etzatea.

Hemos caído en la red

EL mundo avanza muy rápido. El ritmo de innovación en los últimos tiempos es trepidante y recientemente ha habido un par de saltos cualitativos: primero fue el cambio de siglo, le costó pasar pero ya ha quedado muy atrás, y ahora está siendo la adaptación al euro. Dentro de muy poco tiempo el siglo XX será historia o, a la marcha que llevamos, casi prehistoria.

Uno de los aspectos en el que más nos está afectando es el desarrollo de internet. En un plazo muy breve las cosas son muy diferentes para nosotros. Lo que eran novedades de otras sociedades más avanzadas, y que nos creíamos con un cierto poso de duda, ahora ya está aquí. A mayor o menor velocidad hemos entrado en la red. Prácticamente todos. Se ha convertido en una realidad próxima, diaria, normal. Y con la clara sensación de que no hemos hecho más que asomarnos a un mundo nuevo. Otros están mucho más lejos, y hacia allá vamos a todo trapo.

Dos ejemplos en Pyrenaica, de la entrada en la telaraña del mundo de las comunicaciones informáticas. El primero es la sección de El rincón de la montaña en internet que empezó a desarrollar Ricardo Hernani en el último número, el 205, reseñando las cinco mejores páginas mundiales, que pugnan por establecerse como el mejor portal de informa-

ción montañera. Le seguirán en los próximos números los temas de páginas de Pirineos, de Picos, de turismo de montaña, de meteo. La lista es interminable, la sección que se ha introducido por un hueco ocupará un espacio importante, y ...ni siquiera sabemos el formato que tendrá dentro de poco la propia Pyrenaica.

El otro es la página web de la EMF, la mendikoweb que gestiona Luis Ibergallartu. Ya es una realidad, una página cuidada, cada día más atractiva. Con noticias de la Federación y del mundo de la montaña, con meteo, con enlaces cada vez más potentes, con señas electrónicas de los clubs, con contacto por correo directo con los interesados. En seguida con acceso a Pyrenaica.

Pero que no nos despisten. Todo eso está muy bien, y está muy bien el uso del móvil en el monte, y el GPS incorporando la cartografía digitalizada, y otros muchos inventos técnicos muy útiles. Pero lo importante es, y seguirá siendo, ir al monte y disfrutar del paisaje; del sol, de la nieve y de la roca; de los amigos y de la soledad; del esfuerzo y del sacrificio e incluso del cobijo después del temporal, del descanso después de la fatiga y del trago de agua después de pasar sed. Sigue siendo un placer quitarse las botas y tumbarse en el suelo.

Txomin Uriarte